

Goi

Goierritarra aldizkaria

392 zenbakia 2010eko abenduak 17



JIM DIXON
ERRUGBI
TEKNIKARIA

Azokak eta elkartasuna **GABONETAN**



faktore
URTEBERRI ON

Nortasun marka

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Or naburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51


Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG



R.P.S.:32/04

Goierritik 20 minutura...

Sukaldeak

Zeramikak

Bainugelak

Beheko suak



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29

Lakuntza (Nafarroa)

Tel.: 948 57 60 68



www.lopetegi.es



Igor Bueno

Hi Etor, 'Galgo' izena jarri zio-tek dopingaren aurkako azken operazioari. 'Puerto' auziaren jarraipena ote? Diotenez mediku berbera omen zegok tartean guztien buru. Froga kontua izango dek, frogatu ezin dena ez dek esistitzen! Guzti honek kirolari eta kirolzale guztioi era-

giten ziguk. Batzuk argi zeukeagu zintzo, osasuntsu, garbi jokatu nahi diagula, beste batzuk ez ordea. Eta bai, doping hitza kirol munduan definitua zegok, tranpa ordea leku askotan zegok, eta zer esanik ez osasunarentzat kaltegarriak diren produktuak. Norberak ikusiko dik zer egiten duen, baina tranpa egiten duena agerian gera dadila! Asko hitz egingo dek auzi honen inguruan, egunkariak izenak argitaratuko ditiztek, baina gero ikusi egin behar epaitegian zer frogatzen den. Hor eta horra bidean ere ikusi egin behar tranparik ba ote dagoen.

Hi Etor, futbolak salbatuko dik krisia! Baterenbatek uste badu Eric Cantona futbolari ohiak egindako deialdiak, hau da, krisiaren errudun banketxeak jo eta ondorioz bertatik diru guztiak ateratzeko egindako deialdiak huts egin

Doping hitza kirol munduan definitua zegok, tranpa ordea leku askotan zegok.

duela, oker dago. Eric Cantonak hausnarketarako bidea ireki dik eta mugimenduak aurrerantzean emango dira. Nere kasuan esaterako, banketxe etikoei buruz informatzera noak eta gogoratu; uda partean Movistar maltzurra pikutara bidali banian, zergatik ez datozen hilabeteetan banketxe lapurrak ere pikutara bidali? Eta zer esanik ez Eric Cantonari jarraipena emanez Maradonak halako deialdi bat egingo balu!

Hi Etor, hil honen 29an Euskal futbol selekzioaren partida ikusi behar al dek? laz ez, aurtan bai. Gabonetan, Bilbon eta lagunartekoa. Betikoa. Ezer berririk bada, Astore etxearen kamixeta izango da! Hau marka!

Eta gogoratu hitzordua diagula San Silbestrean! Bota bostekoa eta urteberri-on!



Etor Mendia

Bazebilkiagu zalaparta kirol munduan motel! Baina frogatu edo ez, garbi zeok doping-a egon badagoela. Dirua non tranpa han. Kirolariak galtzaile eta izen berdinak dirua irabazten. Eta zer esan inguruko hipokresia guztiaz: federazio, agintari, komunikabideak...

Eliteko kirolean emaitzak agintzen die, inor ez dek kirolariaren osusunaz kezkatzen, tituloek ezartzen die bakoitzaren 'katxea'. Ba ote zeok joku garbian inbertitzeko prest dagoen sponsorrik emaitzak alde batera utzita? Ez al ziguk ba gizarte kapitalista honek erakusten helburua gorenera iristea dela (berdin kirolean zein edozein lanbidetan) auke-ratutako bidea edozein delarik ere? Ez al dizkiagu nahiko adibide politikagintzan urrutira joan gabe?

Futbolearen jarri behar badiagu krisi hontatik irtetzeko esperantza gureak egin dik! Ez al litzakek bidezkoagoa futbolera bideratzen den diru publikoari erabilpen sozialago bat ematea? Nola onartu zitekek dirutza horiek mugitzen dizkien taldeak kriston galerak eragin eta denon artean ordaindu behar izana? Eta futbol zelai berriena?

Dirua non tranpa han. Kirolariak galtzaile eta izen berdinak dirua irabazten.

Banketxei bezela hauei ere dirua 'injektatu' behar... Eta gero AENA-koa izango dek eskandalua! Cantonarena hausnarketarako abiapuntua izan zitekeek, bai, baina bera ere luzaroan aprobeztatu izan dek egoeraz (bere soldata, Nike-ren iragarkiak...)

Futbola aipatuta, kirola eta politika ez ditukela nahastu behar esaten dutenei galdera: politikak ez bada, zerk galarazten digu euskaldunoi nazioartean selekzio ofizial bezala lehiatzeak? Ez al da behar bezain ozen entzun bai jokalariek eta bai herritarrok egiten dugun aldarrikapena? **Euskal Herria bai!**

Aurrekoetan gaizki joan etzaigukenez aurtan ere San Silbestrean jarriko diagu hitzordua eta urte berriak osasuna eta pakea ekar diezagula guztiontzat.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu
ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Ahozko hitza airean barreiatu ohi dut; hitz idatzia zutik eusten ziok. Eta zuen orduko idatzian orain Goierritarra aldizkarian esan duanaren kontrakoa irakurtzen ahal duk.



Dionisio Amundarain

Gutun irekia Juan Kruz Mendizabal Gipuzkoako Bikarioari

Kaixo, Juan Kruz:

Irakurri diat Goierritarra aldizkarian (2010-11-19) egin diaten elkarrizketa. Ez diat asmorik jaulki dituan hire gainerakoez iritzia ematen hasteko.

Gauza batek harritu nauk; Munillaren izendapenaren ingurukoaz esan duana. Alegia, 2009ko abenduaren 14an Gipuzkoako 131 apaizek sinatu zenuten idazkiaz ari haiz. Eta diok: [Izendapenaren] «Moduarekin ez geunden ados. Nik uste dut, modu pertsonal batean erortzea, sinpleegia dela... Prozesua zen salatzen zena...».

Hitz horiekin harriturik, sinatu zenuten dokumentura jo diat. Eta puntu batean hau diozue: «Badakigu Jose Ignacio Munilla jaunak bere apaiz-lanean izan zuen ibilbidea Elizbarrutiko lan-ildoetatik urruti zegoela eta ez zuela halakoekin bat egiten. Beraz, uste dugu ez dela inondik ere pertsona egokia gure Elizbarrutiaren Gotzain- eta Artzain-eginkizuna betetzeko».

Hor, nik uste, izendapenaren modua ez, baizik Munillaz beraz ere eman zenuten zeuen iritzia. Eta haren modu pertsonalaz edo izaera pertsonalaz jardun zineten. Ez duk uste? Uste diat izendapenaren modua eta prozesua baino zerbait gehiago ere salatu zenutela.

Eta alde horretatik, ez zineten bakarrik izan Munillaz irizpen pertsonalak ematen, ez horixe. Baina ez nauk hasiko iritzi haiek guztiak zerrendatzen.

Uste diat eskubide osoa huela hartu duan kargu horretarako Munillak egin zian eskaintzari bai edo ez esateko. Hire arazoa duk. Baina «bai» esate hori zuri nahi izatean, jendea egia zor dialakoan nagok. Eta Goierritarra aldizkarioko elkarrizketa horretan «egia faltsua» bota duk. Ahozko hitza airean barreiatu ohi duk; hitz idatzia zutik eusten ziok. Eta zuen orduko idatzian orain Goierritarra aldizkarian esan duanaren kontrakoa irakurtzen ahal duk.

Besterik gabe, segi ondo.

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Mendizabal, C.B.
ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk. ZALDIBIA

Autowag

☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN



SASIETA
MANKOMUNITATEA

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!

2011n ere, orain arte bezala, zuekin elkarlanean jarraitzea espero dugu.

zubi termikoaren haustura • aroztegi mixtoa
PVC • poliuretanoa
barandak • horma-armairuak • bainuko manparak



Ezenarro
Leiho isolagarriak

Garmendia Otaola, 3 behea
BEASAIN
Tel.: 943 08 42 02

ezenarrosl@hotmail.com

San Francisco, 26 behea
TOLOSA
Tel.: 943 11 85 36



Leihoen
Renove Plana
2010

Sorgin orratzak eta burduntziak: deabrutxo laguntzaileak

Erdi Aroan, Europan, garaiko “zientziak” argitu ezin zituen ezbehar eta zoritxarrak deabru eta indar negatiboen eraginari leporatzen zitzaizkien. Deabruak, noski, bazituen bere lagun eta adiskideak: sorginak, apoak, hontzak, beleak, muskerrak, sugeak, akerrak eta euliak, besteak beste. Euliei buruz, bere bi begi handi horiez gauzak behatzen ibiltzen zirela esaten zen, gero deabruari kontatzeko. Euliak bezalaxe, beste intsektu “begi-handiak” begirale beldurgarriak bilakatu ziren. Hauen artean, gure sorgin-orratz eta burduntziak.

Animalia hauen funtzioa

Sorgin-orratzak eta burduntziak Artropodoak dira, Intsektuetako Odonatuen Ordenekoak. Haragijaleak dira bere bizitzako fase guztietan eta hori da hain zuzen ere Naturan betetzen duten funtzio garrantzitsua: harrapagai eta harrapatzaile izatea. Beste animalia askorentzat janari izanez eta beste hainbatentzako harrapatzaile. Hortan datza gure interesentzat duten balioa, kaltegarri edo gogaikarri diren beste animalia asko akabatzen baitute (eulitxoak, euliak, sitsak eta abar).

Odonatuen egungo egoera

Odonatuek bi espazio mota kolonizatzen dute: ur geldoak (zingirak, urmaelak, lakuak, putzuak) eta ur biziak (ibai eta errekek). Bietan urritze handia jasan dute hauen degradazio eta galtzearen



ondorioz. Europan ur geldoetako espazioen erdia baino gehiago desagertu egin da, batez ere, eraikuntza eta obrenatik. Egoera larria da. Ibaietakoa bezalaxe. Ahaleginak egin eta egiten ari bagara ere, ibaiak errekupe-ratzea daramaten ura garbitzea baino askoz ere gehiago da. Hori da erronka.

Goierriin

Berez, lur urtsuak dira Goierrikoak. Baina ibaiak eta bertako espezieek asko sufri-

tu dute. Asko eta asko desagertu egin dira eta beste batzuk arriskuan daude. Hala ere, badira 30 espezieetik gora gure bailaran. Penintsula osoan 78 odonatu espezie izanik, biodibertsitate handiko lurra dela esan genezake.

Zer egin genezake?

Garrantzitsuenak bere bizilekuak diren ur metaketak errespetatzea eta kontserbatzea da. Urak garbi mantentzea, ez alferrik galtzea. Ibaiak errekupe-ratu behar ditugu, Uraren Kultura berri bat erai-kiaz. Ur geldoetako espezieentzat berriz, urmael eta putzu artifizialak ere egin daitezke, beste animalientzat ere (anfibi-oak, ugaztunak, hegaztiak) oso lagungarriak baitira.

Iñaki Mezquita

JAKIN BEHARREKOAK

Lur Maiteak talde ekologistak epaiketa irabazita:

Bizkaiko Txorierriko Lur Maitea talde ekologistako bi kide epaitu zituzten irailaren 17an Bilbon, Derioko alkateak leporatutako kalumniengatik. Epaitegiak, errugabe jo zituen, hauek iritzia adierazi baino ez zutelako egin.

Automobil en publizitatean CO₂ren isurpenei buruzko informazioa.

Espainia, Belgika, Frantzia, Italia eta Britainia Handian, automobil berrien salmentan CO₂-ren isurpenetaz ematen den informazioa aztertu da eta horien artean Espainia da okerren informatzen duen herrialdea.

LIBURUA

‘Hegaztien behaketa, gida praktikoa’ (Birding Euskadi, 2010). Liburuan hegaztiak ikusteko aukera ematen duten Euskadiko tokirik onenak aurkezten dira. Euskal Erkidegoko hiru lurraldeetako lekuak eskeintzen ditu, urteko sasoi guztietan.

WEBGUNEA


www.bioneers.org. Munduan zabalitzen ari den mugimendua da Bioneers, ideia honetan oinarrituta: natura zaintzea pertsonak zaintzea da, pertsonak zaintzea, natura zaintzea da. Beraien ustez gizarte berria eguzki energian oinarritutako ekonomian, karbono finkapenean eta biosfera eta gizartearen arteko konpatibilitatean oinarritu beharko litzateke.



Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisterea bidali nahi baduzu:

☎ 943161244 landarlan@yahoo.es

Odonatoen bizilekuak diren
ur metaketak errespetatu eta
kontserbatu behar ditugu.



iziama

✗ Dermokosmetika

✗ Haurrentzat
Haur elikadura
Haur elikadura osagarriak
Haurren azala
Beste hainbat produktu

✗ Higienea
Gorputza
Ahoa
Ilea
Barnekoa

✗ Osasuna

✗ Zaintze bereziak

Parafarmazia

Jose Las, 15 - LAZKAO - Tel.: 943 02 77 63

Denetik (XLIV)

Maizpide euskaltegia

Izogailue jartzea merkea dela? Eta mantenimendue?

Goiko esaldiari erreparatu gero, ez gara igogailua jartzearen aldeko ez den pertsonaren iritzia aztertzen hasiko hemen, ez baita hori gure zeregina. Izenburuko esaldia aukeratu badugu, maiz antzean erabiltzen dugun **mantenimendu** hitza euskaraz oso txukuna ez delako izan da. Zuzen esango badugu, **mantentze-lanak** esan beharko dugu aurrerantzean!

✗ Eta **mantenimendue** zeinek pagatuko du, e? (*desegokia*)

✓ Eta **mantentze-lanak** zeinek ordainduko ditu, e? (*egokia*)

Metereologian aditua omen da zuen Eguzkiñe...

Gaztelaniaren eraginez, **metereologia** eta **metereologo** bezalakoak erabiltzeko ohitura dugu euskaraz aspalditxotik. Baina hemendik aurrera **meteorologia** eta **meteorologo** esango dugu!

✗ Biharko **prebisio metereologikoaren** berri eman digu Eguzkiñe metereologoak. (*desegokia*)

✓ Biharko **eguraldi-iragarpenaren** berri eman digu Eguzkiñe meteorologoak. (*egokia*)

✓ Biharko **eguraldi-iragarpena** egin digu Eguzkiñe meteorologoak. (*egokia*)

'Merkatal', 'nekazal' eta 'finantzal'

Izenburuko hirukote hori ere sarri antzean erabiltzen dugu hitz-elkarketarako, baina 'itxuraz' hitz jator askoak badirudite ere, ez dira balekoak! Nola ordezkatu, orduan? Bada, honela:

✗ Aditu ondo, Koxme: etxea ordaintzeko **'finantzal arazoak'** badituk, bireak egin dik! (*desegokia*)

✓ Aditu ondo, Koxme: etxea ordaintzeko **'finantza-arazoak'** badituk, bireak egin dik! (*egokia*)

✓ Aditu ondo, Koxme: etxea ordaintzeko **diru eskasian** baba-bil, bireak egin dik! (*egokia*)

✗ Atzo Bilboko **Merkatal Ganbaran** izan omen hintzen, Juani! Egia al da? (*desegokia*)

✓ Atzo Bilboko **Merkataritza Ganbaran** izan omen hintzen, Juani! Egia al da? (*egokia*)

✗ Espainiako Gobernuaren **nekazal politika** gaitzetsi zuten sindikatuek Madrilgo manifestazioan (*desegokia*)

✓ Espainiako Gobernuaren **nekazaritza-politika** gaitzetsi zuten sindikatuek Madrilgo manifestazioan. (*egokia*)

Eta Cervantes-en hizkuntzako **rural** hori euskaratzeak ere hamaika buruhauste eman duenez, hauxe esango dugu: 'Landa-' edo 'Baserri-' erabiliko dugu! Beraz, **landa etxea**, **baserri-etxea**, **landa-turismoa** (***nekazal turismoa** = desegokia), **baserri turismoa**, **landa medikua**, **baserri medikua**, **baserri ekonomia**. **Baserri kirola** esatea badugu ere, ezagunagoa da **herri kirola**!

Neumonie harrapau... ta hiltzorin eon da gure mateo!

Mateo gizagaixoak zaldi zuriarenak eta beltzarenak ikusiko zituen, horratik! Baina, tira, onik atera da gizona... eta aurrera! Bai, baina aurrera egingo badugu, Euskaltzaindiak **neumonia** hitza ez duela ametitzen esan beharrean gara! Ez hitz hori eta ezta **neumatiko** ere! Eta nola behar duen ez badakizue, erreparatu adibideei:

✗ Ibilgailuak LATA pasatzea nabi badut, aurreko bi **neumati-koak** aldatzeko esan zidak mekanikariak. (*desegokia*)

✓ Ibilgailuak LATA pasatzea nabi badut, aurreko bi **pneumati-koak** aldatzeko esan zidak mekanikariak. (*egokia*)

✓ Ibilgailuak LATA pasatzea nabi badut, aurreko bi **gurpilar** aldatzeko esan zidak mekanikariak. (*egokia*)

✗ **Neumoniak** jota bil zen Jainkomendiko Gontzalo. (*desegokia*)

✓ **Pneumoniak** jota bil zen Jainkomendiko Gontzalo. (*egokia*)



Pareta horren mantentze-lanak... beti Hilarioren esku!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Hilario, ez hadi gehiegi izerditu, pneumoniak jota bukatu nahi ez baduk!
2. Landa-turismoa gustatzen omen zaio gure Tomaxari!

OHARRA: biak zuzenak!



kutxa



Irizar, mende bat betea eta hazten

www.irizar.com



Txerriki azpizuna hostorez bildua gaztaina eta sagar saltsarekin



Toki Alai jatetxea
Arama

Osagaiak

- 2 txerriki azpizun
- Hostore prestatu plantxa bat
- 500 g. gaztaina
- 3 'grani smith' sagar
- Gurin pixka bat
- Gatza
- Arrautza bat
- Oliba olio apur bat

prestaketa

Gaztainak egosten jarri, ipurdian koxka bat kendu eta gero, 30 minutuz. Bitartean sagar-rrak zuritu, zatitu eta gurin pixkat batekin zar-
tagi batean erregosi. Gaztainak ur hotzetan
epeldu, zuritu eta sagarrekin pure bat egin.

Azpizunak edo solomiloak garbitu eta zar-
tagi batean markatu, hau da, kanpotik errego-
si barruko zukuak irten ez daitezen. Gatza eta
pipermina bota. Hostore edo hojaldre plantxa
zabaldtu eta solomotxoak bildu, bakoitza zati
batean. Arrautzez margotu hojaldreak eta labe
beroan sartu 20 minutuz.

Plater zabal batean hojaldre bat zatitu
xerratan, pure apur bat bolatxoetan prestatu
bi goilaren laguntzaz, kroketak egiterakoan
bezala. Beste hostorea osorik utzi ez hozteko
eta soberako purea katilu batean ipini. Eta on
egin!

toki alai
jatetxea

943 88 89 53
arama



Asteburuko
menua

Babarrunak
asteburuetan



Pinazko 'gozokiak' oilaskoarekin eta hirugiharrearekin

Osagaiak

4 lagunentzat:

- 2 oilasko bular
- 4 hirugihar xerra
- Arrautza 1
- Pina erdia
- Baso erdi esne
- Gatza
- Piperbeltza
- Oliba olio
- Brandy basokada bat
- 100 g. azukre beltza
- 75 g. gurin



prestaketa

Oilasko bularra tiratxo finetan, eta hirugiharra eta pina dadotan moztu. Dena, arrautzarekin eta esnearekin nahastu. Gatza bota eta sukaldeko plastikoarekin bildu dena, erroilu forman. Hozkailuan 2 orduz eduki.

Plastikoa kendu eta aurrez 180 gradutan berotutako labean sartu. Gorritutakoan, 160 gradutara jaitsi labea eta 15 minutuz gehiago eduki, olio eta brandy-a botaz joan. Oilasko erroilua dadotxoetan moztu eta bere saltsa gorde.

Gelditu zaigun pina, lamina finetan moztu eta zartagi batean, gurinarekin eta azukrearekin karamelatu. Saltsa hori ere gorde egingo dugu.

Karamelatutako pina laminak zabaldu eta oilasko dadotxoak erdian jarri. 'Gozokiak' itxi, pinaren muturrak elkartuz.

Oilaskoaren erroiloaren eta pinaren saltsei irakinaldi bat eman, gurin pixka batekin argituz. 'Gozokiei' gainetik salsa botaz aurkeztu.

Marcos Chamadoira
Itxune Erretegia
Ormaiztegi



ITXUNE
ERRETEGIA JATETXEA

Gabirialde, 14 ORMAIZTEGI Tel.: 943 16 48 44



Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!

- karaokea ●
- ogitartekoak ●
- plater konbinatuak ●
- ostatua ●
- eguneko menua ●
- despedidak ●





Kalabazin eta otarrainxka lasagna



Osagaiak

4 lagunentzat:

Krepa egiteko

- 125 ml esne
- 150 g. irin
- 4 arrautza
- Gatza

Betegarriak egiteko

- Kalabazin 1
- 2 porru txiki
- Tipula
- 16 otarrainxka
- 2 goilarakada irin
- 300 ml esnegain
- Gurina
- Brik pasta

prestaketa

Gabiriko Ostatua
Gabiria

Kalabazina uretan garbitu eta zati txikietan zatitu, azala kendu gabe. Porrua ere, ongi garbitu ondoren, zati txikietan moztuko dugu. Guzti hau gurinarekin eltze batean poliki-poliki erreko dugu.

Bestalde tipula zatituko dugu, ahalik eta txikien, eta gurinarekin erreko dugu. Tipulak bere ohiko kolorea galtzen duenean aldez aurretik zuritu ditugun otarrainxkak txikiturik botako dizkiogu. Otarrainxkak eginda daudenean irina botako dugu eta honen ostean esnegaina; ondoren, lortu dugun bexamelari gatza gehituko diogu.

Krepa egiteko ontzi batera irina botako dugu eta poliki-poliki esnea, arrautzak eta gatza gehituko dizkiogu, irabiatzeari utzi gabe. Lortuko dugun ore ez da oso lodia izan behar.

20 minutuz hozkailuan eduki ostean, zartagin batean gurina jarriko dugu eta beroa dagoenean ore apur bat botako dugu. Kontuan izan behar dugu krepe fina lortu nahi dugunez, ore gutxi bota behar dugula.

Dena gertu dugunean platera atontzeari ekingo diogu.

Molde karratuan krepa sartu eta honi kalabazin eta porru errea gehituko diogu. Beste krepe zati txikiago batekin guztia estali eta otarrainxka eta tipula bexamela gehituko dugu. Azkenik oliotan erretako brik zatitxoak jarriko dugu.



- Asteazkenetik eguneko menua eta pintxoak

- Ostiraletik igandera:
- Plater konbinatua
- Otartekoak
- Menu Bereziak
- Karta

- Asteazkenetan itxita, deskantsuagatik.

Herriko plaza Gabiria Tel: 943 88 79 13



Txangurro krepeak

Osagaiak


- Txangurro bat

Amerikar saltsarentzako:

- 3 tipula
- Baratzuri buru bat,
- Hiru azenario
- Egindako tomate saltsa
- Mariskoa (otarrainxkak, zigala txikiak)
- Brandy kopa bat

Krepeentzako:

- 5 arrautza
- Litro erdi esne
- Irina
- Gatza
- 50 g. gurin (zartagia igurtzitzeko)



prestaketa

Amerikar saltsa egiteko, barazkiak gorritu oliba oliotan. Tomatea bota eta egosi pixka bat. Mariskoa bota ondoren. Eta azkenik, brandya. Erre. Aurrez egindako arrain salda gehitu eta ordu erdi batez egosten utzi. Gatza eta piper hauts zuria bota. Irabiagailuarekin txikitu eta iragazkitik pasa. Egosten utzi 15 minutuan. Aparra kendu. Gatz edo piper hauts gehiago behar izanez gero, gehitu. Saltsa hau bezperan eginez gero, hobe da egoten da.

Txangurroa egiteko, lapiko batean ura jarri berotzen itsasoko gatz askorekin. Irakiten hasten denean txangurroa sartu eta 20 minutu inguru egosten eduki. Atera txangurroa eta hozten denean, mamitu.

Ondoren, tipula bat txiki-txiki egin eta gorritzen jarri zartagi batean. Txangurroaren mamia gehitu, erre pixka bat eta lehen egindako amerikar saltsa pixka bat gehitu. Egosten utzi. Nahi izanez gero, ogi birrindu apur bat gehitu. Gatza bota, behar izanez gero.

Krepeak egiteko, arrautzak irabiatu, irina gehitu eta ondo nahastu. Esnea eta gatza bota eta berriro nahastu dena. Urtutako gurina gehitu. Iragazkitik pasa, pinportarik gera ez dadin. Ondoren, zartagina ondo berotu, gurinez igurtzi eta aurreko nahasketako goilarakada bat bota. Eginda dagonean, buelta eman eta beste aldetik egin.

Muntaia: Krepe bakoitzak txangurroz estali eta bildu. Erretitu bat gurinez igurtzi, betetako krepeak jarri eta labean erre 5 edo 6 minutuz. Amerikar saltsa sutan jarri eta esnegain pixka bat gehitu. Egosten utzi eta urritzen denean sutatik kendu. Platera aurkezteko, plateraren oinarrian saltsa pixka bat jarri eta gainean, 2 edo 3 krepe. Perrexil txikitu pixka bat bota gainetik.

Izkiña jatetxea
Segura



Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak

Zurbano kalea, 21 - **SEGURA**
Tel.: 943 800 251 / 943 802 169





Iberikoen masailak patata pure arinarekin, askotariko perretxiku salteatuak eta porruak juliana eran frijituak



Osagaiak

2 lagunentzat:

- 6 masaila edo karrilera
- 2 tipula
- porru 1
- Mota ezberdinetako perretxikuak
- Olio, gatza eta piperbeltzat
- 2 patata, gurina eta esnegaina
- Botila erdi ardo
- Irina
- Haragi salda

prestaketa

Martinez jatetxea
Ordizia

Masailei gatza bota eta oliotan gorritu. Behin gorritutakoan, eltzetik atera eta tipula bota bertara. Tipula, poliki-poliki ondo egiten jarri eta kolorea ondo hartzen duenean, ardoa bota eta murrizten utzi. Irin pixka bat mota eta eragiteari utzi gabe, gorritzen utzi. Haragi salda eta masailak gehitu.

Eginda daudenean, masailak atera eta saltsa murriztu. Saltsa pasatu, mota ezberdinetako perretxikuak bota eta gatza bota norbere gustura.

Beste alde batetik, patata purea gurinarekin eta esnegainarekin egin. Porruak berriz, juliana eran, fin-fin moztu eta frijitu.

Platera aurkezteko, plateraren erdian patata purea jarri, ondoren masailak eta azkenik, gainean, frijitutako porruak.



Martínez
Jatetxea

Tel.: 943 88 06 41
Santa Maria kalea, 10
ORDIZIA


Inguruko baratzetatik ekarritako barazki eta lekariak...

Gure basoetako lehen perretxikuak...

Aukeratutako arrain eta haragiak...

Eta gure barran pintxorik goxoenak...

Hau dena lau belaunaldiek egindako lanaren ondorio.



Ordiziako Tabernarien partetik

Eguberri zoriontsuak guztioi!





Lazkao, Ordizia,
Segura, Ataun eta
Beasainen,
abenduarien 17tik 19ra

Asteburu bete liburu eta disko azoka

Beste urte batez, Gabon aurreko egune-
tan, euskal liburu eta disko azokak
izango ditugu Goierriko bost herritan.
Seguran, Ataunen, Ordizian eta Lazkaon, aur-
ten ere elkarlanean aritu dira azokak antolatze-
ko lanetan. Beasainen, beraien aldetik antolatu
dira. Bost azoketan, udalen laguntzari esker,
%10 edo %15eko beherapenak izango dituzte
azokako produktuek.

KIRKOS
SEXOLOGIA ZENTROA

- ✕ Sexu eta bikote terapia
- ✕ Gurasoen aholkularitza
- ✕ Sexu eta elkarbizitza zailtasunak
- ✕ Isurketa goiztiarra
- ✕ Desira eza
- ✕ Inpotentzia
- ✕ Baginismoa

Elizkale, 13 solairuartera - ezk.
ZUMARRAGA
Tel 630 287 321

Edu Reguero A.E.P.S. 421 zkia.

 **GOENAGA**



Eguberri zoriontsuak denoi !

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59
goenaga@goenaga.com
J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN

Lazkao, Ataun, Segura eta Ordizia elkarlanean

Lazkao, Ataun, Segura eta Ordiziako Kultur Elkartek, Euskara Elkartek, Gazte Asanbladak, Ikastetxeak, musika-eskolak, euskaltegiak, kultur-zaleak, irakurleak, Udalak eta Gerriko eta Mujika liburu-dendak elkarlanean, lau gune eta lau forma dituen azoka antolatu dituzte. Antzarrek, otsoek, zopa jaleek eta azek antolatutako azoka. "Elkarlanak funtzionatzen duelako bildu gara lau herri, Goierri zehar euskal liburu-eta disko-azokaren sarea bota eta goierriar guztiei kultur eskaintza egiteko, kultur eskaintza honetan partaide izateko aukera eskaintzeko".

Lazkaokoa 22. edizioa izango da aurtengoa. Ataungoa 5.a, Segurakoa 4.a eta Ordiziakoa 2.a.

Ordizia:

%15eko beherapena izango da azokan.

Abenduak 17, ostirala:

18:00etan: Jakintza eta Urdaneta dantza taldeak.

Ondoren: Kartel lehiaketako irabazleentzako sari banaketak.

19:00etan: Patxi Zubizarretaren 'Joan' liburuaren aurkezpena.

Abenduak 18, larunbata:

17:00etan: Mertxe Aizpurua (musika eskolarekin, pianoa 4 eskutara).

18:00etan: Musika eskolako Konbo taldea.

19:00etan: Abarlotz (Antilla diskoaren aurkezpena).

Abenduak 19, igandea:

11:00etan: Salda eta pintxoak.

17:00etan: Arrate Leundaren ipuin kontaketa.

Lazkao: Merkatal Zentro berria:

%15eko beherapena izango da azokan.

Abenduak 17, ostirala:

16:30ean: Txokolate beroa bizkotxoekin.

18:00etan: Rwandarekiko elkartasun jaialdia Areria Kultur Gunean.

19:00etan: Pintxo-jatea.

Abenduak 18, larunbata:

11:00etan: Ipuin-kontaketa Udal Liburutegian.

12:00etan: Salda.

18:00etatik 20:00etara: Gaztaina erreak, astoa eta gurdia, buruhandiak, pintxoak, sagardoa, zahato ardoa...

Abenduak 19, igandea:

12:00etan: Salda. Goierriko bertso-eskolako bertsolarien saioa. Haurrentzat jolasak.

14:00etan: Bazkaria frontoian, babarrun-jana: babarruna, aza, odolkia, saiheskia, txorixoa, ozpinetako piperrak. Sagar erreak. Ardoa, sagardoa, kafea eta kopa. Txartelak aurrez hartu behar dira Gerriko liburu-dendan, 15 euroren truke.

Segura

Ordutegia: Ostirala: 18:00etatik 20:30era. Larunbata: 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 20:30era. Igandea: 11:00etatik 14:00etara. Segura Irratiko lokaletan.

%15eko beherapena izango da, euskal liburu, disko eta jostailuetan, Udalaren laguntzari esker.

Abenduak 16, osteguna:

18:30ean: 'Beti alai, aste ta jai' Segurako pilotaren historia liburuaren inguruko tertulia. Kultur Etxean. Hizlariak: Aitor Ugalde eta Andoni Etxeberria liburuaren egileak.

Abenduak 17, ostirala:

18:30ean: Azokaren inaugurazioa. Gaztainak eta ardoa, txistularien kalejira eta herriko korua kalez kale.

19:00etan: Argazki lehiaketako sariak.

19:30ean: Xabier Mendiguren idazlearen eskutik, Joxean Ormazabal gogoan.

Ataungo VI. Liburu eta disko azoka, Aian

Liburu eta diskoak %15eko beherapenarekin eros ahal izango dira Ataungo udalaren laguntzari esker.

Abenduak 17, ostirala:

18:00etan: Azokaren irekiera.

19:30ean: Jon Benitok 'Bulkada' liburuaren aurkeztuko du.

20:30ean: Afaria Haitzarri elkartearen musikaz alaiturik.

Abenduak 18, larunbata:

'Herriararen txokoa'

11:00etan: Azokaren irekiera.

12:00etan: Ur Apalategik 'Fikzioaren Izterrak' aurkeztuko du.

19:20ean: Sastarri lan taldeak bere azken lana, 'Belarra' DVDa, aurkeztuko du. Musika taldeko kideek parte hartuko dute.

Abenduak 19, igandea:

'Azoka txikia'

11:00etan: Azokaren irekiera

11:30etan: Ipuin kontalaria.

13:00etan: Gotzon Barandiaranek 'Errotik' liburuaren aurkeztuko du.

14:00etan: Azokaren itxiera.

Beasain

Liburu azoka Gernika pasealekuko frontoian egingo da abenduaren 17, 18 eta 19an. Liburu azokan salgai dauden produktuek %10eko deskontua izango dute.

Ordutegia: Ostirala: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Larunbata: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Igandea: 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.



Erretegi bezala zabalik

- * Eguneroko menuak
- * Karta zerbitzua
- * Ospakizunak
- * Plater konbinatuak

Asteburuetan menu berezia: 20 euro kafea barne

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



xetai
diseinuzko altzari eta sukaldeak

www.xetai.net
nafarroa etorbidea 1, solairuartera - 20200 beasain

Kultur azokez gain, elkartasun azokak ere izango dira egunotan Goierriin. Rwanda, Haiti eta Beninekiko elkartasuna, euskal presoekiko elkartasuna, Beasaingo Andramendi Ikastolarekiko elkartasuna... mota eta helburu ezberdinetako azokak izango dira asteburuan, Beasainen, Ordizian, Ormaiztegin eta Lazkaon. Herriz herri eta azokaz azoka egin dugu errepasoa.



Beasain-Ordizia Herriak Elkarlanean

Beasaingo eta Ordiziako Herriak Elkarlanean Misio Taldeek, eguzki-lanparak biltzeko kanpaina jarri dute abian Gabon hauetarako. Benin-go haurrentzat izango dira eguzki-lanparak. Horren arrazoia azaldu digu Herriak Elkarlaneako Gorka Eskalantek: "Benin-go umeek hezkuntza mugatuta dute lanarekin bateratu behar dutelako eta bere hezkuntza programan ezin dute aurreratu. Batez ere, neskek; lana iluntzean bukatzen dutelako eta etxeetan ez dagoelako elektrizitaterik. Beraz, nahita ere ezin dute ikasketekin jarraitu ez dagoelako argirik".

Erosi eta bidali nahi diren eguzki-lanparek eguzkitan kargatzen duen bateria dute. Eguzkitan 9 orduz kargatuta,

3 orduko argia ematen dute. Horrelako eguzki-lanparak erostea da Herriak Elkarlanean-en helburua. Horretarako, 15 euroko kupoiak atera dituzte. Horixe baita eguzki-lanpara bakoitzak balio duena.

Kanpaina horiez gain, Herriak Elkarlanean-ek gogora ekarri nahi du, Ordizian eta Beasainen bidezko merkataritzaren dendak dituztela.

Otsailean, edukiontzia

A z k e n i k , otsailean, Herriak Elkarlanean era-kundeak Benin-era edukiontzia bidaliko duenez, materiala biltzen ere hasita daudela jakinarazi izan du Gorka Eskalantek.



- Aroztegia
- Altzariak neurritara
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 -Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com

**ZEGAMA
OKINDEGIA**
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

Lazkao Rwandaren aldeko Elkartasun jardunaldiak

Lazkaoko Rwanda Taldeak eta San Benito Ikastolak, 'Hirugarren Mundua ezagutzen. Beste mundu bat posible da' lelopean, XII. Elkartasunaren aldeko jardunaldiak antolatu dituzte egunotarako. Jarraian zehetasun guztiak.

Akuarela erakusketa

'Afrika bihotzean'. Afrikako bizimodua, pertsonak, lanak irudikatzen dituen akuarela bilduma izango da ikusgai, abenduaren 19ra bitartean, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Egilea: Juan Ramon Etxeberria.

Ordutegia: astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 4,30etatik 8etara; larunbatetan, 12:00etatik 13:30era eta 18:00etatik 20:00etara.

Bidezko merkataritzako produktuen eta eskulanen salmenta

Abenduaren 19ra bitartean. Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 16:30etik 20:00etara; eta larunbatetan, 12:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 20:00etara.

Elkartasun jaialdia

Abenduaren 17an, arratsaldeko 6etan, Aleria Kultur gunean, San Benito Ikastolako neska-mutikoei Rwandako Giharako eskolaren alde prestatutako jaialdia. Musika, dantza, antzerkia,...

Elkartasunezko jostailuen salmenta

Abenduaren 17an, 18an eta 19a, arratsaldeko 4,30etatik aurrera, Plazako estalpean, bigarren eskuko jostailuak erosteko aukera izango da.

Beasain Alkartasuna Lizeoaren Benin-en aldeko Elkartasun eguna

Beasaingo Alkartasuna Lizeokoak goizago ibili dira, elkartasun azokarekin. Abenduaren 11n, ospatu zuten Elkartasun eguna. Aurretik, ikasleek, irakasleek eta gurasoek, jostailuak, ipuinak, liburuak, musika, moztortzeko jantziak, kiroleko tresnak... bildu zituzten azokan saltzeko. Azokaren helburua, Benin-go hauren hezkuntzan laguntzeko eguzki-lanparak erosteko dirua lortzea zen. Bidezko Merkataritzako produktuak ere salgai izan ziren.




Alkartasuna Lizeotik aurretu dutenez, Olentzero kantuan jasotako dirua ere proiektu honetara bideratuko dute. Ikasturtean zehar ere, elkartasun ekimen gehiago ere egingo dituzte.



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka. 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)


NELSON BARBOSA
ERREFORMAK
Gremioen koordinazioa
tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**


GERTU
ENPRESA AHOLKULARIAK - ABOKATUAK
San Inazio, 5 - 20200 BEASAIN
Tel: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
gertu@gertuasesores.com


MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Beasain La Sallen, Kilo bat elikagai, Benin-en alde

La Salle-San Jose ikastetxean, urtero aprobetxatzen dute Gabon ingurua, besteei laguntzeko filosofia eta kontzientzia indartzeko. Iaz, Haitira bidaltzeko materiala bildu zuten eta aurten, Benin-era bideratuko dute laguntza. Herriak Elkarlanean erakundearekin elkarlanean egingo dute kanpaina. Izan ere, Herriak Elkarlanean-ek, jan eta material ezberdinez betetako edukiontzia bidaliko du otsailean Benin-era. La Sallekoen helburua, ikasleen artean, 600 kilo janari biltzea da. Lekariak, atun-poteak... galtzen ez diren janariak bilduko dituzte.



Abenduaren 22ra arte egingo dute bilketa. “4. DBHkoak pasatuko dira gelaz gela bilketa egitera. Abenduaren 22an, ikasle zaharrenek, bildutakoa, Herriak Elkarlanearen lokalera eramango dute”, argitu du Mikel Garcia irakasleak.

Ormaiztegi Haitirekiko elkartasun ekintzak

Ormaiztegin ez da berria Gabon egun hauetan elkartasun ekintzak egitea. Orain dela 6 bat urte hasita, Haur kateke-siko hainbat umek, tonbola jartzen zuten etxean zituzten jostailu, liburu, apaingarri eta abarrekin, garapen bidean dauden herrialdeetako pertsonen laguntzeko. Bertan ateratako dirua, Elizbatrutarik Misio ordezkariari ematen zitzaion.

Aurten beste urrats bat emango du Ormaiztegi Parrokiako katekista eta boluntario talde batek, Herriak

Elkarlanean erakundearekin harreman estua dutela aprobetxatuz. “Urtegi Pastoral Barrutia sortu da, eta Beasain eta Ormaiztegi arteko parrokiek batura bat osatzen dugunez, Herriak Elkarlanean erakundearekin harreman estua dugu. Haitiko herriari laguntzeko egin duten ekintza ezberdinetan parte hartu izan nahi dugunez, aurtengo Eguberri Jaietan, gure herrian ere ezagutzera eman nahi dugu Gobernu Kanpoko Erakunde honek egiten duen lana. Beraz, Haitiko lurrikaraz antolatuta duten erakusketari tokia egin nahi diogu, eta bide batez, Bidezko Merkataritza zer den ere ezagutzera eman, Beasain eta Ordizian dauden denda hauei, egun batzuz gurean leku eginez”, dio Itziar Arozenak.

Era honetan, abenduaren 28tik 30era, Haitiri buruzko erakusketa eta Bidezko merkataritzako denda jarriko dituzte. Ziurrenik, denda, Deba harategiaren ondoko lokalean jarriko dute eta erakusketa, Udaletxeko beheko aretoan. Goiz eta arratsalde egongo dira irekita.

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA




zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58
Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA

over Urraki
Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es



suquia



Kale Nagusia, 10

TEL.: 943 882 300 **ORDIZIA**

suquia@suquiahogar.com

Nafarroa Etorbidea, 16

TEL.: 943 884 375 **BEASAIN**

suquiacocinas.e@suquiahogar.com

sukaldeak eta etxetresna elektrikoak



www.suquiahogar.com

Beasain

Ikastolaren aldeko I. Merkatu Txikia

Bigarren eskuko merkatu txikia antolatu dute aurten lehenengo aldiz Beasaingo Andramendi Ikastolak eta Bareak Merkatarien elkarteak. Kontsumo iraunkorra eta arduratsua helburu hartuta, "kontsumitzeko beste era bat posible dela eta gauzak berrerabiltzeko filosofia bultzatu nahi dugu. Guk behar ez ditugun gauzei, bigarren aukera emana nahi diegu", diote Lierni Ormazabal eta Nekane Zufiaurre Ikastolako gurasoek.

Ikastolako kideek eta herritarrek emandako era ezberdinetako materiala, abenduaren 17tik 19ra bitartean izango dira salgai. Jostailuak, liburuak, arropa, apaingarriak, altzariak... denetarik izango da aukeran merkatu txikian.



Loinazko San Martin plazaren azpia izango du merkatu txikiak kokaleku. Ondoko ordutegia izango du: 11:00etatik 21:00etara, jarraian, etenik gabe. Hori bai, ostiralean, arratsaldez bakarrik egongo da irekita, 17:00etatik 21:00etara.

Proiektu honek badu bigarren helburu bat: merkatu txikian lortutako dirua, Ikastolaren beharrei aurre egiteko erabiliko baita.

Ordizia

Presoen aldeko elkartasun denda

Ordizian badira urte batzuk, 5 zehazki, presoen aldeko bigarren eskuko denda jartzen dutela. Aurten ere, era guztietako materiala bildu eta abenduaren 17an eta 18an, izango dira salgai. Lokala aurkitzeko zailtasuna dela eta, aurreko urtean antolatzaileek, kaleko Elkartasun denda antolatzea erabaki zuten, Plaza Nagusian. Ostiralean, 18:00etatik 22:00etara egongo da kale-denda irekita eta larunbatean, 11:00etatik 22:00etara, etenik gabe.

Antolatzaileek esan dutenez, denetarik aurki daiteke Elkartasun kale-dendan. "Denetarik, material berritik hasita (Askatasunak urtero ateratzen duena), jendeak ematen digun guztia, bai arropa, bai liburu, disko eta edozein pitxi.



Izugarritzko ustegabeak aurkitu daitezke batzuetan, espero ez duzuna".



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

ZAHARRA • BERRI


IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

Eguberri zoriontsuak guztioi!



Irriargi:

Haurrak “bizitza-aukera aske, arduratsu eta kontzientean haztea helburu duten” familien elkarte



Irriargi elkarteko bainbat kide.

Goierriko familien elkarte da Irriargi. Beraien seme-alabak hazteko “bizimodu kontzientean baten alde egiten dute lan”. 21 familiek osatzen dute momentuz Irriargi elkarte. Taldea irekia da. “Haurraren osasunarekin, hazkuntzarekin, hezkuntzarekin... zerikusia duten gaien inguruan bestelako informazio bat zabalteko eta esperientziak konpartitzeko beharraren ondo-

rioz, 2010. urte hasieran biltzen ginen. Elkarrekin elkarrekin gune izan nahi du, familien arteko bilgune bat izateko sortu da”, diote Irriargi elkarte osatzen duten Ixiar Eratsun, Nerea Manzisidor eta Oiana Ortega amek.

Izan ere, “erditze aurreko ikastaroak egoten dira baina erditze ondorengorik ez. Haurra jaio eta pediatrak

ambulatorioan ezarritako pausatutako jarraitzearen inguruan hausnarketa egiten dugu. Zehaztutako pausoez gain beste alternatiba batzuk ere badaudelako. Zalantzak asko izaten dira. Adibidez, txertoak jarri behar zaizkiela haurrei. Pediatrak hala esaten duelako jarri egiten da, aukerarik egokiena den zalantza jarri gabe. Baina gai askoren inguruan, ikuspegi ezberdinak

daude eta”, diote. Askotan informazio alternatiboa, norberak bilatu behar izaten du eta norberak atera ondorioak. Irriargin horixe egiten dute, gai ezberdinei buruzko materiala bildu, aztertu eta bakoitzak bere ondorioak atera ditzala”, diote Irriargikoek.

Beste eredu bat

Beste gai ugari ere lantzen dituzte Irriargin, beraien hau-

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42001

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Olagi Urte guztian zabalik
Eguneroko menua Karta
Sagardotegia Jatetxea Sagardotegiko meua

☎ 943 88 77 26 ALTZAGA

A SEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA JURIDIKOA LABORALA FISKALA MERKANTILA INMOBILIARIA FINKEN ADMINISTRAZIOA

txekin
www.txekin.net

Tel.: 943 887 129 Oriamendi 15, behea BEASAIN
Tel.: 943 086 420 J.M. Iturriotz, z/g

rrren irri argia baitute helburu. Elikadura ekologikoa, eskoletako hezkuntza, gurasoen eta haurren arteko komunikazioa, haurrek gizarten duten lekua... "Informazio ofizialetik aparte dagoen informazioa bilatu nahi dugu, uste dugulako esaten digutenaz gain badaudela haurrak hezteko beste modu batzuk", gaineratu dute.

Haurraren nahiak kontuan hartzea garrantzitsua dela diote. Haurra bera errespetatzea. "Haurrek beren lekua dute, eta askotan gurasoek geure nahien arabera hezten

inor 20 urterekin amarekin lo egiten duenik. Batzuei gehiago gustatzen zaie. Gure artean hitz eginez, laguntzen du, erabaki batzuetan, bakarra ez zarela ikusten. Askotan, arraroa sentitzen zara baina zu bezala pentsatzen dutenak ere badirela ikusteak, lagundu egiten du".

Hausnartu

Informazio hori guztia lortzea ordea ez da batere erraza eta kosta egiten da. "Datu ofizialak edonon eta edonoren eskura dauden bitartean, gai nontzekoa ezkutuan bezala

**Haurraren osasunarekin,
hazkuntzarekin, hezkuntzarekin...
zerikusia duten gaien inguruan
bestelako informazio bat
zabaltzeko eta esperientziak
konpartitzeko beharraren
ondorioz sortu da taldea.**

ditugu, guri komeni zaigun eran... Haurra egokitzen da gure eritmorra eta ez alderantziz. Bularren kasuan adibidez, honela pentsatzen dute: "guk gosea dugunean jaten dugu, baina haurrei ezin zaie bularra nahi dutenean eman, zehaztutako aldi eta uneetan bakarrik".

Beste adibide bat ere jarri digute. "Gaur egun, gurasoekin lo egitea txarra dela esaten da... nik ez dut ezagutzen

dagoelako". Irriargikoek aurkitu eta hausnartutako zenbait informazio, www.irriargi.com web-gunean dago zintzilikaturik, interesa duenak irakur ditzan.

Elkarteko gunea

Gurasoen topaleku eta elkar gune izan nahi du Irriargik. Esperientziak trukatzeko gunea. "Elkartek, elkarteko gune izan nahi du, familien arteko bilgune bat izateko

Irriargiren helburuak

- ✓ Laguntza ematea aita, ama eta familiei, eduki dezaten bizi-tza-aukera askea, arduratsua, kontzientea eta koherentea erditzeetan, jaiozetan, hazkuntzan eta hezkuntzan, eta aukera hori izan dadila duina eta begirunezkoa protagonista guztiekin.
- ✓ Amatasunaren, aitatasunaren, hazkuntzaren eta hezkuntzaren esparruko informazioa biltzea eta zabaltzea, eta bidea erraztea informazio horretara, era erraz eta argian, beren haurrak hazten ari diren emakume, gizon, ama, aiten eta haurren osasuneko profesionalen eta nahi duten guztiei, laguntzeko eduki dezaten erabakitzeko aukera askea, kontzientea eta arduratsua.
- ✓ Hausnarketarako bidea zabaltzea eta analisia sustatzea, topikorik eta aurreiritzirik gabe amatasunari, hazkuntzari eta hezkuntzari dagokienez, eta zabaltzea zein garrantzizkoa den amatasuna emakumeen gizarte- eta espiritu-eraldaketarako, bai eta zein inplikazio eta ondorio dakarren gizartearen maila guztietan.
- ✓ Gizarte-sareen antolaketa sustatzea, beren umeak hazten ari diren emakume, gizon eta familiek elkarri laguntzeko bideak gara ditzaten.

sortu da. Interesa duen edonork, gure elkarteko bazkide egiteko aukera du, hala ere, erabat irekia da eta ez dago zertan bazkide egin beharrik".

Astero biltzen dira Irriargikoak informazioa trukatzeko eta baita kanpora begirako ekintzak prestatzeko. Talde bat goizetan eta bestea arratsaldetan biltzen da. Beasainen bi leku dituzte elkarteko: goizetan Berritsu ludotekan biltzen dira eta arratsaldetan, Urbietako gela balioanitzean. Web-gune egutegiari jarraituz, abenduaren 16an, goizeko 10etan Berritsun bilduko dira eta

abenduaren 22an, arratsaldeko 5etan, Urbietako gela balioanitzean. Kanpora begirako hitzaldiak edo tailerrak ere antolatzen ditu Irriargik. Elikadura ekologikoaren inguruan eta azpi-pelbikoaren inguruan adibidez. Datorren urteari begira, gehiago antolatzekotan dira.

Truke txokoa

Esperientziak eta informazioa trukatzeko gain, haurrak behar izaten dituen materiala... trukatzeko txokoa ere badauka Irriargik. Sehaskak, aulkitxoak, harropa, motxila...



zuhatzki
Zurgindegia

Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU



biok
zerbitzuak

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

LEIAR



KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua 1/g
943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
943 88 60 70
BEASAIN



Antilla

12 abesti, 12 istorio, hamaika sentimentu

Abarlotz Olano bakarleri zaldibiarrek
lehenengo diskoa kaleratu du

Zaldibiako garaje bat du Abarlotz Olanok bere sormen eta entseiu leku eta bertan sortutako doinuak eta hitzak, zabaldu eta aieratu nahi ditu. “Ni hementxe aritzen naiz, garajea. Hementxe sortutakoak dira eta nola zabaldu diren ikustea polita da. Pixkanan-pixkanan ari dira eta poz izugarria da. Bakardade eta zulo honetatik, Txori Txikiak badoazela hegaka ikustea. Joan daitezela”.

Lehenengo diskoa kalera-
tu du: ‘Abar Antilla’. 12 kantu
biltzen ditu. 12 istorio. 12 sen-
tipen. Antillari omenaldia egin
nahi izan dio. Baina, nor zen
Antilla? “Aberea zen Antilla.
Nik ezagutu nuenean, zaharra
zen. Arrazaz, nortasunez, ara-
biarra zen. Zoragarria zen.
Ama bat bezala izan zen nire-
tzat. Zuri-zuria zen. Ikusi
bezain pronto, diskoan esaten
dudan bezala, “Lehendabi-

**Antillak gehiago
eman dit, mila
lagunek eman
dezaketena baino.
Hori adierazten
dut diskoan.**


*zikoan ikustean nerea zinen
ni zurea naizen bezala.
Oraina, geroa, eraman naza-
zu betikotz Antilla abere
honekin”, lehenengo harre-
man horretan, pertsona bat
edo animalia bat ikusi orduko
sentitzen duzu zerbait, atrak-
zio bat bezala, benetako sen-
timendu fuerte bat, eta hori
bizi guztikoa da. Nik horretan
sinisten dut, eta bakar ere
eman didalako. Bera ez zego-
en oso ondo zainduta, gaixo
bezala zegoen. Nik bera sen-
datu beharrean, berak ni sen-
datu nau. Animaliek ikaragarri
ematen dute. Bere falta izuga-
rria nabaritzen dut. Izugarria!
Egitazko sentimentu bat da
Antilla. Animalia horrek asko
eman dit. Disko honekin
batez ere adierazi nahi dut,
bizitza honetan ez zaidala
inporta zorioneko diru edo
gatazka hori, benetan, anima-
lia baten bizia baloratzen dut.
Izugarria da. Berak gehiago*

eman dit, mila lagunek eman diezaidaketena baino. Hori adierazten dut diskoan". Diskoaren azalean azaltzen dena, bere alaba da.

Antilla, 12 protagonistetarikoriko bat da, baina badira beste 11. Eskalea, Ametsak, Abarrotsak, Nere buruari, Bizi nahiaren auzia, Hodei, Egi printzak, Lorerik politena, Txori Txiki bat naiz, Pozik eta Zuri begiratuaz dira beste 11 abestiak.

"Jende askok galdetzen dit ea nire musika zein estilo den. Estiloa? Azkenean da, gitarra hartu eta sentimendu bat, zuk sentitzen duzuna esatea. Ez diot estiloari begiratzeko. 12 abesti hauek, ni naitzena da. Ez naiz joan, asko salduko den disko baten bila. Nire lagunekin, txikitan izan duzun harremana, Txori Txikiak... oso sinplea da".

Berak sortutako kantuak dira guztiak. "Hasieran beti, besteen abestiak abesten hasi nintzen. Nonbaitetik edan beharra daukazu. Aspertu nintzen besteenak abesten eta nireekin hasi nintzen, gitarra eta armonika lagun hartuta. Gustura sentitzen naiz nire kantuak sortzen eta egiten. Ez nuen espero, abestiak sortuko nituenik. Baina atera dira. Abesti gehiago ere badituzte prestatuta. Abestia sortzea baino garrantzitsuagoa da, bukatuta edukitzea. Kosta egiten da bukatzea. Egun batean ez da abesti bat egiten. Niri gustatzen zait, gauzak ahal dela sakontzea, eta milaka eta milaka buelta ematea. Batzutan ateratzen da milaka



Martikorenaren eta Ducauren ondoan

Beti miretsi izan duzun Mixel Ducau ondoan izan duzu.

Niri beti gustatu izan zait musikari bezala, Mixel Ducau. Pertsona zoragarria da. Disko bat produzitzera joaten denean, musikari denek behar dute musikari bat ondoan, produzitzeko, eta Mixel Doucauri egin nion deia. Hasieran ez zidan kaso handiegirik egin. Kantuak bidali nizekionean, gustatu zitzaion eta hori izugarria izan da niretzat. Gauza horiek izugarri baloratzen ditut. Ezer ez ere izan eta horrelako Jaungoiko batek baloratzea, izugarria da. Eskerrak ematen dizkiot Mixel Doucauri. Seme bat banintz bezala hartu nau, bere etxera eraman nau, kantaldi batzuetara ere eraman nau...

Jakin dugu Iparraldeko beste abeslari batekin, Erramun Martikorenarekin, ere aritu zarela kantuan.

Erramunekin, eta Jean Michel Bedaxagarrekin ere bai. Oso jende sentibera da, eta batez ere, oso jatorrak dira. Poz handi bat da Erramun bezalako batekin abestea bere bailarran. Berarekin abesti nuen, elkarri helduta. Biok, 'Goizian argia hastian' abestu genuen.

buelta emanda eta beste batzuetan bi buelta emanda,

eta beste batzuetan, nahi gabe".

Gitarra eta armonikarekin abesten du Abarlotzek baina diskorako, laguntzaile ugari izan du inguruan. Mixel Ducau, Caroline Philips, Victor Lezama, Fredi Peleaz, Joxean Flores, Igor Oiarbide, Amaur Karabilleja, Urbil Artola, Arkaitz Miner eta Iñigo Egia. Fredy Pelaezen Beasaingo Pottoka estudioan grabatu du eta gustura gelditu da "nire barreneko sentimenduak jendeari azaleratuta".

Diskoarekin batera, kontzertuak ere baditu. Herritik, Zaldibiatik hasi nahi du kontzertuekin eta oraindik data erabat zehazteko badago ere, urtarila erdialdera izango omen da Zaldibian kontzertua. Orain, zuzeneko kontzertuak prestatzen ari da. Abenduan, Ordiziako liburu azokan ere bere lana aurkezteko aukera izango du abenduaren 18an, 18:00etan.

Rock & rolla

Zuzeneko kontzertuak prestatzeaz gain, dena den, abesti berriak sortzen ari da. Estilo berriarekin gainera. "Orain artekoa oso propioa izan da baina hortik, nire sufrimendu horretatik atera nahi dut pixka bat. Rock & rolla asko gustatzen zait eta abestiak sortzen ari naiz, dibertigarriagoak. Aurrera begiratu behar da, ez da beti leku batean gelditu behar. Beti, ura edaten aritea oso pobrea da, noizbehinka txanpain pixka bat ere behar da. Esan nahi dut, noizbehinka, gitarra elektrikoa hartu eta zure rocka ere atera behar dela. Rock&rolla oso dibertigarria da".

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioak, Eraikuntzak,
Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGAIK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Esnaola 8
Tel 943 721 978
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate



Jim Dixon Ordizia Errugbi
Elkarteko kirol zuzendaria:
**“Ez naiz lehenengo
taldea entrenatzera
bakarrik etorri.
Elkarte osoa
hobetzera baizik”**

Zeelanda Berrikoa da eta 33 urte ditu Jim Dixonek, horietako azken bi urte eta erdiak daramatza Ordizian, bere gustoko kirolean lan egiteaz gain, kultura berriak ezagutuz. Oraindik euskararik ikasi ez badu ere telefonoan euskaraz egiten du lehen hitza, baita agurrak ere. Baina ez da hori bera ezagutzean gehien harritu gaituena, ultramaratoiak egiteko duen zaletasuna, baizik.

Denboraldi ona egiten ari zarete aurten.

Jende guztiak aurten ondo ari garela dio, baina azken hiru denboraldietan lan asko egin dugu, joko hobetzeko. Aurten, aurreko hiru-lau urteetako lanaren emaitzak jasotzen ari gara. Oso ondo daude mutilak. Konfiantza gehiagorekin daude. 3-4 gazte baditugu, 19 urtez azpiko selekzioarekin jokatzeko ari direnak. Oso ondo ari dira.

Harrobiarekin lanean ondo ari zaretenaren seinalea izango da hori.

Beti nahi ditugu etxeko jokalariek taldean. Oso garrantzitsua da, bai taldearentzat, bai zaleentzat. Zaleek bertako jendea ikusi nahi du maila altuan jokatzeko. Baina zaila da. Lan asko egin behar da. Talde profesionalen aurka jokatzeko dugu, atzeritar asko fitxatzen dituzte taldeek.

Ordiziako taldearen filosofia, ahalik eta bertako jokalariek gehien izatea da, Ordiziakoak, Goierrikoak eta Euskal Herrikoak. Zenbait postutarako esperientziadun jendea falta bada, kanpotik ekarri behar da. Maila altuan jokatu behar baduzu, lehiatzeko, kanpotarrak behar dira. Lehiatzeaz gain, irabazi egin behar da.

Atzeritarrek Espainiar Estatuko Ligara erakartzea errazal da?

Hasiera batean ez. Zaila da. Jendeak ez du Espainiako errugbiaren maila ezagutzen. Espainiako Selektzioa bera ere ez da oso indartsua. Beraz, erreferentzia horrekin, jendeak ez du etorri nahi. Baina Liga, oso-oso gogorra da. Maila ona du. Espainiako Ligak, Europako 5-6 onenen artekoa da. Gero eta gehiago ezagutzen da jendeak ondo hitz egiten du. Orain gero eta errazagoa da mutilak erakartzea.

Eta zu zeu, nola iritsi zinen Ordiziara?

Londonen lanean aritu nintzen, talde batekin eta Ingalaterrako Errugbi Federazioarekin, entrenatzaileak entrenatuz. Interneten ikusi nuen, Ordizian, atzerriko kirol zuzendari bat behar zutela, taldea hobetzeko. Londresen bost urte neramatzan eta aldatzeko garai ona zela iruditu zitzaidan. Politza da, herrialde ezberdinetako kultura eta errugbia ezagutzea. Zeelanda Berria, Australian, Irlanda eta Ingalaterran jokatu dut eta aukera ona zen Espainiako Liga ezagutzeko.

Bi gauza uztartu nahi nituen: kultura eta errugbia. Ingalaterran errugbia besterik ez neukan, lan eta lan, eta ez neukan aisialdirako denborarik. Hemen, lana egin, baina kultura, festaz, aisialdiaz... gozatzeko aukera daukat. Gaztelera ikasteko ere bai.

Zeelanda Berritik kanpo urte asko daramatzazu beraz.

Bai, 10 urte egingo ditut Gabonetan. 2000. urtean, Australiako talde batera joan nintzen errugbian jokatzera, eta lan egitera. Queensland eskualdeko Federazioan aritu nintzen lanean, selekzioko behe mailako taldeak entrenatzen. Bi urte egin nituen Australian. Ondoren, Irlandara joan nintzen. Talde oso on batean aritu nintzen jokatzeko. Irlandatik, Londonera joan nintzen. Lesioak zirela eta, gutxi jokatzeko nuen eta lanean hasi nintzen, entrenatzen.

Ordiziako lehenengo egunak nola gogoratzen dituzu?

Oso zailak izan ziren. Hizkuntza zaila egin zitzaidan. Kultura oso sustraitua dago hemen. Beste hizkuntza bat dago... Ni gaztelera ikasten aritu nintzen eta euskararekin egin nuen topo. Baina gaur egun hori dena ez da inongo arazoa.

Axiorekin ere zaila izan zen hasiera. Nik ez nuen gaztelaraz edo euskaraz hitz egiten, eta Axiok ere ez ingelesez. Baina jendeak ikasteko gogoia zuen, hobetu egin nahi zuen, eta oso ondo hartu ninduten. Jendea oso irekia da. Oso ondo hartu naute. Taldeko jokalariek batekin bizi izan naiz, gaztelera azkarra ikasteko. Festa asko egin ditugu eta ikasi dugu.

Beste lan egiteko modu bat ere ekarriko zenuen. Lan egiteko modua asko aldatu al da?

Bai, asko. Orain dela 3-4 urte arte, etxeko jokalariek ziren ia denak. Baina maila gorenera igo zirenean, bazekiten beste jokalariek batzuk beharko zituztela, esperientzia gehiago zeukate-nak. Entrenatzeko modua ezberdina ere eskatzen zuen eta horregatik etorri nintzen. Jendeak oso ondo hartu nau. Oso irekiak dira. Jokalariak, entrenatzaileak eta zuzendariak ere hobetu egin nahi zuten.

Ez naiz lehenengo taldea entrenatzera bakarrik etorri.

Elkarte osoa hobetzera baizik. Gero eta mutil gehiago dabilta errugbian eta entrenatzaileen kalitatea hobetzea beharrezkoa zen. Ikastetxetan eskolak ere ematen hasi gara, errugbiaren kultura Goierri eta Ordizian zabaltzeko.

Goierriko hainbat eskolekin ari zarete lanean.

Taldeko profesionalak, eskoletara joaten dira, ia astero. Ingelesekin ematen ditugu eskolak. Alde batetik errugbia zabaltzen da eta bestetik haurrek ingelesa praktikatzeko dute. Proiektua gustatu da eskoletan.

Gaur egun, errugbia zabaltzen da eskualdean...

Taldeko helduenek diote, duela urte batzuk ez zela errugbiko baloiarekin haurrak kalean jolasten ikusten. Gaur egun, haur asko ikusten dira. Politza da.

Ordiziako lehenengo egunak oso zailak izan ziren. (...) Baina jendeak ikasteko gogoia zuen, hobetu egin nahi zuen, eta oso ondo hartu ninduten.



Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE

Isuses industrialdea - ARAMA
Tel. eta Faxes: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU
ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi!

Aranburu

OINETAKOAK

☎ 943 880 127 Kale Nagusia, 36 BEASAIN

Goi

943 16 00 56
goierritarra@goierrikohitza.info

Goierritarra aldizkaria



Zein da Ordizia bezalako herri txiki batek, horrelako mailan dabilen taldea edukitzearen sekretua?

Gauza asko daude. Lehenengo, pertsona askok egin duten lan handia. Zuzendaritzak lan asko egiten du eta urtetik urtera lan handiagoa egin behar du, dirua lortzeko. Baita ere, oso garrantzitsua da, taldean, Ordiziako edo inguruko jendea izatea. Herriko jendeak, herriko gazteak ikusi nahi ditu, mailaz igotzen eta hobetzen. Orain nahasketa handiagoa da, bertakoen eta atzerritarren artean.

Zein profesionalizazio maila dago? Zenbat profesional zaudete?

8 profesional gaude. 7 jokalaria eta ni. Zelanda Berriko bi jokalaria, Galeseko bat, bi Ingalaterrako eta beste bi espainiar (Valentziakoa eta Valladolidekoa) daude.

Zehazki zein da zure lana Errugbi Elkartean?

Profesionalekin lan handia egiten dut. Taldetik kanpora, lan handia egiten dute. Lan fisiko handia egiten dute. Gimnasiako ariketak programatzen dizkiet. Zelaian ere etxekoek baino lan gehiago egiten dute. Ikastetxeetako errugbi ikastaroak antolatzen ditugu. Entrenatzaileentzako entrenamenduak egiten ditugu. Zuzendaritzari ere laguntzen diegu, marketing arloan,

komunikabideekin hitz egiten... Beti dago zerbait egiteko. Medikuak, disziplina... norbaitek disziplina arazoa baldin badu, konpontzen saiatu... Denetik egiten dugu.

Gimnasioa hobetzen ari gara. Makina berriak jarriko ditugu. Oso gimnasio ona jarriko dugu.

Disziplina aipatu duzu. Nola lotzen dira festa eta kirola?

Ez dago arazorik, lan asko egiten dute. Ez dute jokatu bakarrik egiten, beheko taldeak ere entrenatzen dituzte. Talde bakoitzean, jokalaria profesional bana dago. Eskoletan ere lan asko egiten dute.

Jendeak pentsatzen du polita dela profesionala izatea. Polita izango da baina, zelaitik kanpo lan asko egiten dute. Ez dugu jokatu besterik nahi ez duen jokalaririk. Inplikazioa nahi dugu. Jokalariak bilatzen ari garenean, horri asko begiratzen diogu, jokatu baino gehiago egingo duen jokalaria izatea.

Profesionalei eta lanean zortzi ordu egin ondoren

entrenatzera datorrenari berdina eskatzen al zaio?

Oso zaila da etxekoentzat. Gogorra da. Profesionalen maila berean jokatzeko ari dira, eta batzuk ez daukate denborarik profesionalek bezala entrenatzeko. Baina ulertzen dugu, ikasi edo lana egin behar dutela, familia daukatela... Nik uste dut sis-

Oso garrantzitsua da, taldean, Ordiziako edo inguruko jendea izatea. Herriko jendeak, herriko gazteak ikusi nahi ditu, mailaz igotzen eta hobetzen

tema ona daukagula. Ahal dutenean lana egiten dute eta guk ere lagundu egiten diegu. Oraingoz ez daukagu arazorik. Gogoa handia daukate. Maila urtetik urtera hobea da eta lana egin beharra dago, bestela ez dugu hobetzen.

Harrobia landu eta lana egitea al da gakoa?

Jokalari asko datoz onak eta talde guztiak Ordiziara begira daude, ea zertan ari ote garen.

Aurkariek ere nabaritu dute beraz aldaketa.

Bai. Nik uste dut, orain, talde guztien errespetua daukagula. Orain dela urtebete edo bi urte, ezin genuen gauza bera esan, baina orain bai. Ordiziara etortzen dira eta ia ezinezkoa dute irabaztea. Oso garrantzitsua eta polita da hori. Mutilek lan handia egin dute eta beraien 'gatzelua' bihurtu da Altamira. Etxetik kanpo ere, orain, nahiko ondo gabilta. Mentalitate berdina, daukagu etxean eta kanpoan. Hori zen helburuetariko bat, helburu garrantzitsua, etxean eta kanpoan maila berdinean jokatzera.

Trebijanotik Altamirarako aldaketa, onerako izan al da?

Ez dakit. Nik uste dut, gure jokoarentzat, hobea dela. Jendeari gustatzen zitzaion Trevijano, ikusleak, zelaitik gertu zeudelako, eta giroa izugarria izaten zen. Baina orain Altamiran ere, giro izugarria daukagu. Jende asko etortzen da. Ezberdina da. Baina guretzat, nik uste dut hobea dela. Beste taldeak ez daude ohituta zelai artifizialean jokatzera. 15-20 minutu behar dituzte ohitzeko eta guk ordurako bi-hiru entsegu sartuta gaude. Atzealdean jokalarik oso-oso azkarrak daukagu eta horregatik ona da guretzat Altamira. Espainiako Ligako bi azkarrenak dira Huxford eta Perico.

Zein helburu dituzue?

Behe mailako taldeak hobetzen jarraitu nahi dugu. Benjaminetan ere mutil asko daukagu eta entrenatzaile gehiago jartzen ari gara. Jubenil eta kadete mailako mutilak ari dira haurrak entrenatzen. Eskoletan egin den lana nabari da.

Talde nagusiari dagokionez, ez dugu epe luzerako helburuez hitz egiten, astez aste joaten gara. Asteroko partida irabazteko lana egitea izaten da helburua. Hobetzen jarraitu nahi dugu. Aurrean bagabiltza, lasaiago jokatzeko da, presio gutxiagorekin. Atzean ibilita, presio gehiagorekin jokatzeko da. Oraingoz lasai gabilta, baikor gara.

Iparraldean, errugbian maila hobea dago. Biarritz edo Baionara joaten al zara partiduak ikustera?

Gure partiduak direla eta, asko ezin dut baina, urtean bi-hiru aldiz joaten gara. Frantzia errugbi kultura handia dago. Zeelanda Berrian ere bai, haur guztiek daukate errubiko baloia etxean.

Kirol asto samarra dela dio hainbatek.

Ez da biolentzia. Politena da, denek jokatu dezaketeela, postu ezberdinak daude, ezaugarri ezberdinak dituenentzat. Denentzako postuak daude. Ikusteko ere oso kirol polita da.

“Ultramaratoiak dira nire bigarren zaletasuna”

Zeren hutsunea nabaritu duzu Zeelanda Berritik?

Familia. Familia handia gara eta oso gutxitan elkartzen gara denok.

Eta Londresetik?

Lagunak. Janaria ere bai. Denetik daukazu: janari txinatarra, japoniarra, mexikarra... jatea gustatzen zait, eta jateko Londres oso ona da.

Eta Euskal Herritik zer eramango zenuke Zeelanda Berrira?

Jendea. Oso jende jatorra dago. Eta baita ere, euskaldunen lanerako jarrera. Ez kirolean bakarrik. Hemengo jendea oso langilea da. Errugbian entrenatzeko ere pasio handia daukate.

Errugbia ez den beste kirol bat?

Ultramaratoiak. Uztailan Txinan izan nintzen. 250 kilometroko lasterketa batean izan nintzen. Datorren urtean, Nepalera joatekoa naiz. 4.000 metroko desnibela dauka eta 250 kilometro. Eta hurrengoan, Artikora joango naiz. Ia 300 kilometrokoa da hori.

Zenbat ordu dira korrika?

Astebetean, egunero maratoi bat gutxigorabehera. Baina Txinan, gelditu gabe, 110 kilometro egin nituen. Oso gogorra da, oso-oso gogorra.

Goierri iaz antolatu zuten Ehunmilak proba. Motza izango da hori zuretzat!

Erraza!, berotzeko! Nire lana eta pasioa, errugbia da, baina beste zaletasuna bat ere eduki behar da. Mendira joatea asko gustatzen zait. Normalean, 6 hilabetean entrenatu egiten dut eta beste sei hilabetean, atsedena hartu.

Zaletasun bat:

Biografiak irakurtzea. Adibidez, Edmund Hillary, Everest igo zuen lehenengoa, Zeelanda Berrikoa. Inspiratzeko ondo etortzen zait.

Janari bat:

Dena gustatzen zait, baina batez ere janari mexikarra gustatzen zait. Pikantea.

Edari bat:

Errioxako ardoa, eta ron-kuba.

Bizitzeko leku bat:

Tailandia gustatzen zait.

Oporretarako leku bat:

India, Tailandia... Asia asko gustatzen zait. Afrika ere oso polita da.

Amets bat:

Ahal izanez gero, Zeelanda Berriko selekzioa entrenatzea.

ibaiondo

altzariak

- barne diseinua
- dekorazioa
- sukaldeak
- proiektuak

Katea, 5 - Antzizar auzoa

BEASAIN

tel.: 943 16 40 40

faxa: 943 16 47 47

mug.: 639 631 640

www.mueblesibaiondo.com

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak,
alineazioa,
aluminiozko lllantak

Filtroak, olioak,
engrasea

Frenu pastilak, tubo
eskapeak, bateriak

Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Ordizia

Ordiziako Gabonetako ekintzak

Abenduak 17, ostirala:

18:00etan: Barrenan Liburu Azoka. Jakintza eta Urdaneta dantza taldeak eta kartel lehiaketako sari banaketak. Antolatzailea: Hitzaro Euskara Elkartea.

18:30ean: Jubilatuen Egoitzan Eguberrietako jaialdia.

19:00etan: Barrenan Kultur Etxean, Patxi Zubizarretaren 'Joan-Hartzak, erlojuak eta beste piztia batzuk' elaberriaren aurkezpena.

19:00etan: Barrenan, Kirol-sarien emanaldia, Ordizia 2010.

Abenduak 18, larunbata:

17:00etan: Liburu Azoka: Barrenan, ipuin kontaketa Mertxe Aizpuruarekin.

18:00etan: Liburu Azoka, Musika Eskolako konboa.

19:00etan: Liburu Azoka, Abarlotz abeslariaren 'Antilla' diskoaren aurkezpena.

Abenduak 19, igandea

12:00etan: Liburu Azoka: Barrenan, salda eta pintxoak.

17:00etan: Liburu Azokan ipuin kontaketa: Arrate Leunda.

19:00etan: Santa Ana abesbatzaren Eguberri kontzertua elizan. Luis Urteagari omenaldia Ordiziako Txistulariekin eta Pepe Arzelus organojoiearekin.

Abenduak 21, asteartea:

17:30ean: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa Mertxe Aizpuruarekin.

19:00etan: Musika Eskolako ikasleak aterako dira eta Eguberrietako doinu herrikoiak joko dituzte.

Abenduak 22, asteazkena:

19:00etan: Goiztiri-AEK euskaltegiak antolatutako Gabonetako postal lehiaketako sari banaketa eta lan guztien erakusketa Barrenan.

Abenduak 23, osteguna:

20:15ean: Oroith eta Oroith txiki abesbatzek eskainitako Eguberri-Kontzertua elizan.

Abenduak 24, ostirala:

Goizean: Eguberrietako abesbatzak kaleratuko dira.

18:00etan: Olentzero etorriko da dantzari eta trikitilariak lagun dituela. Ibilbidea: Arantzik Plaza Nagusira.

Abenduak 25, larunbata:

10:30ean: Diana 'Beti-Argi' musika bandaren eskutik.

13:00etan: Eguberrietako kontzertua 'Beti Argi' musika bandaren eskutik Plaza Nagusian.

Abenduak 27, astelehena:

10:30ean: Majori Kiroldegian, Gabonetako VII. Saskibalo lehiaketa, haurren teknifikaziorako eskolen artekoa.

11:00etan: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa Maite Frankorekin.

12:00etan: D'Elikatuz gunean, Ordizian zehar altxorraren bila jokua, 6-9 urte bitarteko haurrentzat.

17:00etan: Majori Kiroldegian, Gabonetako VII. Saskibalo lehiaketaren finalak.

Abenduak 28, asteartea

10:00etan: Altamiran, II. Futbol Torneoa, Alebin mailakoa.

11:00etan: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa Pello Añorgarekin.

18:00etan: Jubilatuen Egoitzan, 'Aiton-amona eta bere biloben eguna'. 'Monda Lironda' pailazoak.

Abenduak 29, asteazkena: Eguberrietako azoka berezia:

09:00etan: Kapoi, Antzar eta indioilarren XXIV. Erakusketa Beti Alai Pilotalekuan; errezil sagar, fruitu, fruitu lehorren erakusketa Garagartza Plazan. Orein, pottoka, asto, bigantxa... erakusketa Beti Alai kanpoko pilotalekuan.

11:00etan: Udal Liburutegian, ipuin kontaketa ingelesez Maite Frankorekin.

Abenduak 30, osteguna:

10:00etan: Majori Kiroldegian 3x3 Saskibalo Alebin Torneoa.

11:00etan: Udal Liburutegian, 'Teleipuina' txotxongilo emanaldia Toni La Salekin.

11:00etan: Beti-Alai pilotalekuan haur parkea.

16:00etatik 18:00etara: Beti-Alai pilotalekuan haur parkea.

18:00etan: Majori kiroldegian capoeira erakustaldia.

18:00etan: Jubilatuen egoitzan, urte bukaerako jaialdia.

Abenduak 31, osteguna

17:00etan: Txindoki-Aletismo taldeak eta Goiz Aterpe Elkartek antolatutako XXXV. San Silbestre krosa. Proba herrikoia, arratsaldeko 18:30etan hasiko da.

19:30ean: Ohikoa den 'Kattalin' doinua joz, Beti Argi Banda eta Laguntasuna errondaila kaleratuko dira.

Urtarrilak 1, larunbata:

22:00etan: Herri Antzokian bertso jaialdia: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi, Amaia Agirre, Ainhoa Mujika eta Julen Agirre. Gai jartzailea: Igor Eguren. Antolatzailea: Argi Berri Elkartea.

Urtarrilak 2, igandea:

16:00ean eta 18:30ean: 'Ongi etorri Pupu eta Lore' ikuskizun berria eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta MariMotots pailazoei Majori kiroldegian. Antolatzailea: Goierriko Ikastolak-Hazia Elkartea-Urruña.

Urtarrilak 3, astelehena:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00ak arte: Haur Parkea Beti Alai pilotalekuan.

Urtarrilak 4, asteartea:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00ak arte: Haur Parkea Beti Alai pilotalekuan.

Urtarrilak 5, asteazkena:

11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00ak arte: Haur Parkea Beti Alai pilotalekuan.

19:00etan: Bustuntzatik Erregeen Kabalgata abiatuko da eta Plaza Nagusian amaituko.

Urtarrilak 6, osteguna:

10:30ean: Ordiziako Txistularien Diana.

11:00etan: Santa Ana abesbatzak lagundutako Meza Nagusia elizan.



ORDIZIA
OSASUN ZENTROA

Tel.: 943 16 40 48 · Faxe: 943 16 47 03

Goierri kalea ORDIZIA

Hitzordua aldeaz aurretik
943 16 40 48

LASER TERAPIA UNITATEA

ZAINEN LASER TERAPIA



Laser sistemari esker, aurpegi eta zangoetako zain ezatseginak kendu daitezke.

LASER DEPILAZIOA



Gorputzeko eta aurpegiko ile antiestetikoak desagerrarazi ditzazkezu, udan eta azal beltzaranarekin ere bai.

LASER GENESIA



Gasze itxura berreskuratzen laguntzen duen tratamendua, zahatzearen aztarnak ezabatuz: poro irekiak, textura irregularra eta zimur txikiak.



LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**MEDIKU KOLEGIATUEK
EGINDAKO TRATAMENDUAK**

**EZ EGON ZAIN!
INFORMA ZAITEZ!**

MEDIKU KOADROA

FAMILIAKO MEDIKUNTZA ● Natasa Vujic Dr. ● Mikel Ansa Dr. ● Jorge Sampetro Dr.	PSIKOLOGIA ● Montse Corghete	ERREHABILITAZIOA ● Vanessa Bahon Dr. ● Laida Artola Dr.
DIETETIKA ETA NUTRIZIOA ● Cristina Perez	UROLOGIA ● Dámaso Sanchez Dr.	PODOLOGIA ● Ioana Arbilla
ALERKOLOGIA ● Maria Mar Del Castillo Dr.	GINEKOLOGIA ● Irune Alzola Dr. ● Emilio San Pedro Dr.	FISIOTERAPEUTAK ● Eider Iturrospe ● Ainhoa Cupido
DERMATOLOGIA ● Conchi Tamayo Dr.	ORL (sudur, eztarri, belarri) ● Luis Mutio Dr.	ERIZAINZAN DIPL. (ATS) ● Marivi Beriain ● Arantzazu Balerdi
ODOL eta PIXA ANALISIAK HORTZETAKO ERRADIOGRAFIK ERRADIOGRAFIA OROKORRAK	PSIKIATRIA ● Lourdes Del Campo Dr.	KIRURGIA OROKORRA ● Juan Kerejeta Dr.
EKOGRAFIK (3D eta 4D) MAMOGRAFIK	ENPRESEN AZTERKETA MEDIKUAK	GIDATZEKO ETA ARMENTZAKO AZTERKETA MEDIKUAK

Ordizia

Pirritx, Porrotx, Marimotots eta Pupu eta Lore, urtarrilaren 2an

Goierriko Ikastolek eta Urruñako Hazia Elkarrekin Iparraldeko ikastolen alde antolatzen duten jaialdia, urtarrilaren 2an izango da. Bi saiotan, 16:00etan eta 18:30ean, 'Ongi etorri Pupu eta Lore' ikuskizun berria eskainiko dute Pirritx, Porrotx eta MariMotots pailazoez Majori kiroldegian. Sarrerak aurrez eros daitezke Ordiziako Jakintza Ikastolan, Lazkao San Benito Ikastolan eta Beasaingo Andramendi Ikastolan.

Ordizia

Erakusketak Barrenan

Abenduaren 21etik urtarrilaren 5era: V. Arte Plastikoen Lehiaketa Goiart 2010-Ordizia Sarian saritutako eta aukeratutako lanen erakusketa, Barrena Kultur Etxean. Astelehenetik larunbatera 18:00etan eta 20:00etan; 24an, 31n eta jai-egunetan itxita egongo da.

Abenduaren 1etik Urtarrilaren 4ra: Irakurri eta Oparitu ekimeneko liburu erakusketa, Barrena Kultur Etxean.

Goierri

AEKren ekintzak

Abenduak 15, asteazkena:

18:00etan: 'Vespa Velutina' Asiako liztorra. Hizlaria: Egoitz Galartza albataria. Beasaingo AEKren egoitzan (Urbialde plaza, 7 behe).

Abenduak 16, osteguna:

18:00etan: Talo ikastaroa izango da, Arriarango Intxaurpe elkartearen.

Abenduak 22, asteazkena:

19:00etan: Postal lehiaketako sari banaketa, Barrena Jauregian.

Segura

Literatura tertulia

Abenduaren 16an, arratsaldeko 6,30etan, Kultur Etxe berrian, literatura tertulila taldea elkartuko da. 13 lagunek osatzen dute taldea eta ondorengo da beraien metodologia: liburua aukeratu, idazlearekin hitzordua lotu, liburua eskuratu eta taldekideen artean banatu, irakurri eta azkenik idazlea bertan dela tertulia egin. Zazpigarren tertulia izango da oraingoa eta zazpigarrena, bereziagoa izango da: taldeaz gain herritar orori zabalduko zaizkio atea.

Liburu azokaren barruan sartu dute ekimena. Aukeratutako liburua Andoni Etxeberria eta Aitor Ugalde segurarrek argitaratu berri duten 'Jai alai aste ta jai' Segurako pilotari buruzko lana da.

Lazkao

Abenduko ekintzak

Abenduak 18, larunbata:

20:00etan: Xanbe eta Kantaka abesbatzen eguberri emanaldia San Migel parrokian.

Abenduak 19, igandea:

11:00etan: Benediktarren konbentuan meza Easo kapera gregoriana eta Lazkao abesbatzaren partaidetzarekin.

Abenduak 22, asteazkena:

18:30ean: Lazkao txiki musika eskolako ikasleen kontzertua Areria Kultur Gunean.

Abenduak 24, ostirala:

Goizean: Goizez ikastolako haurrak kantari herrian zehar eta iluntzean herriko talde eta abesbatzak kantari eta Olentzeroren etorrera Plazara.

Abenduak 25, larunbata:

13:00etan: Jaiotza Biziduna Lazkao Txiki zelaian, 13:00etan

Abenduak 28, asteartea:

18:30ean: 'Musika tresnen fabrika' antzerki musika ikuskizuna Areria Kultur Gunean. Sarrera dohainik.

Urtarrilak 9, igandea:

Astotxo eguna.

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA
INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
IKASKEA ARAZOAK

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120
685 722 403 - 675 006 462
ikaskide@ikaskide.net

ondoeta

ondoeta

GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Consultorio Médico Quirúrgico
Kontsultorio Mediku Kirurgikoa.

Nafarroa etorb. 25 - 2.

Tel.: 943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

BEASAIN

Analisi eta erreabilitazioa:

Garmendia Otaola, 2-behea

Espezialista eta zerbitzu ugari

Pediatría, Ginekología, Dermatología
Traumatología, Dietetika eta nutrizioa

...

Zaindu zure osasuna. Etor zaitez!
www.consultoriomedicobeasain.com



Arrautzak eta Bere Elikagaiak

Gorrotxategi Oilategia E.A.

Bikuña, 19. 20213 Idiazabal (Gipuzkoa)

Telf.: 943 187 676 Fax: 943 187 661

e-mail: luis@avicolagorrotxategi.com

web: www.huevospitas.es

GORROTXATEGI
IDIAZABAL

Beasain

Abenduko ekintzak

Abenduak 23, osteguna:

22:30ean: Dantza jaialdia Ostadar taldearekin, Usurbe Antzokian.

Abenduak 24, ostirala:

17:30ean: Olentzerori ongi etorria, Loinazko San Martin plazan.

18:30ean: Gabon eskea, Igartzako errotatik.

Abenduak 25, larunbata:

12:00etan: Udal Txistulari Bandaren kalejira, Igartza jauregian.

Abenduak 26, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Txindokira. Antolatzailea, Aizkorri Mendizale elkarte.

19:00etan: V. Gospel Zikloa, 'The upper room Gospel', Igartza jauregian.

Abenduaren 27tik 30era:

11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era: Haurren Gabonetako parkea, Antzizar kiroldegian.

Abenduak 31, ostirala:

12:00etan: San Silbestre krosa.

Idiazabal

Abenduko ekintzak

Abenduak 17, ostirala:

17:30ean: Maite Franko ipuin kontalaria, balio anitzeko aretoan.

Abenduak 24, ostirala:

10:30ean: Herri Eskolan, Herri Eskolako guraso eta ikasleak gabon eskean ibiliko dira.

11:00etan: Errekarteko autobus geltokian, euskal preso politikoan aldeko kantu eskea eta ondoren bazkaria. Antolatzailea: Kimu Kultur Elkarte.

15:30ean: Baserriz baserri kopletan. Antolatzailea: IGA.

18:00etan: Herriko abesbatza eta txistulari taldearen Gabonetako kontzertua.

19:00etan: Olentzeroren etorrera. Antolatzailea: IGA.

Abenduak 30, osteguna:

11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara: Haurrentzat puzgarriak Igarondo pilotalekuan.

22:00etan: Bertso saioa, Guraso Elkarte. Joxe Munduate (ataundarra), Iban Urdangarin (ataundarra), Aitor Sarriegi (beasaindarra), Iker Zubeldia (zegama), Gorka Maiz (gabiriarra) eta Ainhoa Mujika (beasaindarra).

Mutiloa

Kultur astea

Abenduak 15, asteazkena:

19:30ean: Iban Mate sukaldariaren hitzaldia, Udaletxeko Ganbaran.

Abenduak 16, osteguna:

19:00etan: Iñaki Salegi Etxebesteren (Zumarragako Ospitaleko medikua) hitzaldia, Udaletxeko Ganbaran.

Abenduak 17, ostirala:

17:30ean: Umeentzako emanaldia, Udaletxeko Ganbaran.

19:30ean: Ardo kata, Udaletxeko Ganbaran.

Erakusketa

Abenduaren 18tik urtarrilaren 2ra:

Goierriko Artisten IX. Topaketa, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Goieniz

Abenduak 16, osteguna:

21:00etan: 'Soul Kitchen' filma, Usurbe Antzokian.

Abenduak 30, osteguna:

21:00etan: Laburmetraien emanaldia, Usurbe Antzokian.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia Implantologia Periodontzia	Artikulazio eta ahoko minak Radiologia digital zerbitzua Eskaner digitala
---	---

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 31. zenbakia 2010eko abendua



San Nikolas Txiki



Abenduaren 6a da San Nikolas eguna

Segurako eta Zegamako San Nikolas Txiki

Abenduaren 6a, egun berezia izaten da Segurako eta Zegamako haurrentzat. San Nikolas Txikiren eguna ospatzen dute. Haurren zaintzailea den Santuaren oroitza-penean sei urteko haurra Gotzain jantzi eta kalez kale umeez inguraturik Santuari abestuz joaten dira, bitartean, etxeetatik botatako gozokiak jasoz.

Zozketa bidez, aukeratzen dute nor izango den San Nikolas Txikia. Seguran, Ainara Barbosa

izan da. Laguntzailea izaten du San Nikolasek. Seguran, Uxue Lasarte izan zen. Zegamaren kasuan, jakin dugunez, aurten ez dira San Nikolas eskean atera, egutegi arrazoiak tarteko.

Goztzen txikiaren jantzi berezia jantzita, pottoka gainean ibiltzen da San Nikolas Txiki. Kalez kale ibiltzen dira haurrak eta San Nikolasek keinua egiten duenean, haurrak kantari hasten dira. Abesti berezia abesten da.

Goierrihartxoren koadroan azaltzen da.

Kantari eta eskean. Kantatzen bukatu ondoren, gora begiratzen dute, balkoietara. Segurarrak ondo prestatuta egoten dira eta makina bat gozoki eta litxarrerria botatzen dizkiete txikienei. Ondo prestatuta joaten dira haurrak, plastikozko poltsekin, ahalik eta goxoko gehienak jasotzeko. Hori bai, tarteka, haserrealdiren bat edo beste izaten da.

San Nikolasen historia

Urte asko dituen tradizioa da San Nikolas Txikirena. Seguran eta Zegaman sendo eusten diete ohi-turari.

Baina nor zen San Nikolas Txiki? Historiak edo kondairak dioenez, Nikolas Asian jaio zen III. mendean. Bost urte zituenean, oso gustuko zuen Elizara otoitz egitera joatea. Inguruko haur guztientzat eredu zen.

Apaiz sartu zen. Palestinara alde egin zuen. Han, itsasoan zehar, mirari asko egin omen zituen. Adibidez, ekaitzak gelditu eta arriskuan zeuden itsasontziak portura gidatu, marinelen eta itsasgizonen patroï bihurtuz.

Palestinako leku santuak eza-gutu ondoren, San Jose, Ama Maria eta Jesus Haurrak Judeatik Egipto aldera irten zirenean, gaua igaro zuten kobazuloan sartu zen bere bizitza guztia han igarotzeko asmoz. Bertan zegoela, Jainkoak Mirara itzul zezan jakinarazi zion. Mirara itzuli eta monasterio batean sartu zen.



Pottokaren gainean egiten du San Nikolas Txikik ibilbidea.



San Nikolas Txikiaren abestia

*San Nikolas Txikia
gure ganbaran hazia,
gure ganbaran zer dago,
haren gona gorria.
Bost eta sei bakalao jale
Bost eta sei hamaika
Txorixorik ez baldin bada
Berdin dala lukainka (bis).
Bota-bota-bota*

Juan Gotzaina hil zenean, probintziako Gotzain guztiek, aho batez, Nikolas izendatu zuten gotzaina. Liciano enperadoreak, katez josita erbesteratu zuen Nikolas bere kontra jartzeagatik. Handik urte batzuetara bere Elizara itzuli zen.

Egun batez, Jainkoak, bere heriotza ordua eta eguna jakinarazi zizkion eta Sioneko monasterioan bere azken egunak igaro zituen. 327. urte aldera, abenduaren 6an hil zen.

Nikolas Txiki pastelak

San Nikolas egunean bada beste ohitura bat Seguran. "Nikolas Txiki" pastelak. Gozo hauek, Segura sortu zeneko 750. urteurrenerako sortu ziren. Bi motatakoak egiten dituzte: sagar konpotaz beteak batzuk eta txokolatz bustita besteak.



Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden laukitxoak bete behar dituzu, 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz, eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

				8	7	5	6	3
8			6	4			2	
3	7				9		8	
		4		7			9	8
7			4			2	5	
5	6	3			2	4		
4	8			2		6		
2							3	5
	3	5	9					

ZER IRAKURRI?


*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Ehun ipuin hitz gutxitan

Autorea: Joxantonio Ormazabal
Ilustratzailea: Jon Zabaleta
Argitaletxea: Elkar

Izenburu batek gutxitan laburtzen du liburuan dagoen mamia hain era zehatz eta analitikoan: liburu honetan orrialde laurdeneko - baita lerro pare bateko- ehun ipuin topatuko ditu irakurleak. Guztiak Ormazabalen irudimen emankor, bihurri eta malenkoniatsuaren burutazioen ehun erradiografia.



Kokoriko


Autorea: Marisa Nuñez
Ilustratzailea: Helga Bansch
Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea
Argitaletxea: OQO-Txalaparta

Konpartitzen ikasten ari direnentzako da, bereziki, Marisa Nuñezek moldatutako ipuin Birmaniar hau. Haur garena ez ditugu aurrean daukagunaren sentimenduak, nabaritzen, nahikoa lan izaten dugu geure burua gobernatzen, besteenak asmatzen ibiltzeko! Makina bat aldiz jasotzen du haurrak errieta, ulertzen ez duen konpartitu beharrak kausa. Irakurletxo hunkibera bazara, magal babesgari batean irakurtzekoa duzu hau.

7 aldeak



Aurkitu irtenbidea





Lazkaoko futbol taldea 1980 urte inguruan

Lazkaok Kirol Elkartearen lehen urteetako futbol talde bat ageri da Anartz Eztalak utzi digun argazkian. Adin desberdinetako jokalariek osatzen dute taldea.

Zutik ezkerretik eskuinera: Mikel Huarte, Alberto Sukia, Gorka Lami, Sepulveda, Oscar Carrion, Iñaki Eskisabel, Pajares, Imanol Aierza eta Migel Angel Zeberio.

Pikotxean: Kepa Zubiarrain, Jokin Sarriegi, Anartz Eztala, Iñaki Arrizabalaga, Santoyo eta Asier Sarriegi.



**ARANDIA
GARAJEA**
Autoen konponketa
N-1, z/g Iurre Auzoa OLABERRIA ☎ 943 88 09 47



Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Gabonetan oparitu **AIZPEA** artisau gazta

Sari berezientan:

- ✗ Ordiziako txapelketan 2007an 4. postua, 2008an 3. eta 2009an 4. na
- ✗ Mendiko gaztaren olimpiadetan 2005ean Veronan urrezko domina, 2007an Oberstdorf brontzeko domina
- ✗ Euskal Herriko txapelketan lehen saria 1994an, 2007an eta 2008an
- ✗ World Cheese awards 2008an Dubline zilarrezko eta brontzeko dominak, 2009an Kanariar Irlan urrezko domina eta 2010an Birminghamen brontzeko domina.

Mikel Etkezarreta eta Eli Arrillaga - Tel.: **635 74 79 70**
Aizpea baseria - **OLABERRIA** - aizpeagazta@euskalnet.net




zorionak urteberri on


Nafarroa etorbidea, 14 Beasain
T 943 88 31 10 www.argioptika.com

PRADA D&G VERSACE BURBERRY


factura



berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea




U011

URTARRILA
OTSAILA 2011

**NORA JOAN
AUKERATU ZUK**
eta gainontzekoa
egingo dugu guk

abio@abio.es
www.abio.es



VIAJES
ABIO

BIDAIAK
943 805 311

OPORRETARAKO ESKAINTZA BEREZIA

Urtarrila / Otsaila

2010eko abenduaren 23a baino lehen
egin behar da erreserba.



%8^{-ko}
BEHERAPENA



%5^{-eko}
BEHERAPEN

gehigarria
Visa Viajes Iberia
txartelarekin
ordainduta

TUNIZIA
8 egun > 242€

BRASIL
9 egun > 742€

LANZAROTE
8 egun > 238€

Eta gainera, zure bidaia 3, 6 edota 10 hilabetetan interesik gabe
finantzia dezakezu VISA Viajes Iberia txartelarekin ordainduta*

* Zehaztasun gehiagorako zatoz Abio Bidaiakera edota jar zaitez gurekin harremanetan.